



2008KO OTSAILAREN 11KO
EZ OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zortziko otsailaren hamaikan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ez ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola, Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Amagoia Naldaiz Mingo, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal eta Ricardo Crespo Rubio zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- 2008KO MARTXOAREN 9KO HAUTESKUNDE MAHAJETARAKO MAHAIKIDEAK AUKERATZEKO ZOZKETA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Eguneko Gai Zerrendako puntu bakarrari ekiten zaio, 2008ko martxoaren 9an egingo diren Espainiako Gorte Nagusietara Hauteskundeak direla eta Hauteskunde Mahaietako partaideak aukeratzeko zozketari hain zuzen ere, Hauteskundeetako Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 26.4 artikulua xedatutakoaren arabera.

Zozketa, horretarako prestatutako informatika programa baten bidez egiten da, datuak Lazkaoko hautesle zentsutik hartzen dira, Instituto Nacional de Estadística erakundeak bidalitako CONOCE programatik hain zuzen.

Zozketaren ondoren Lazkaoko Udalerrian eratuko diren 6 mahaietarako presidente eta bokalak aukeratzeko dira, titular nahiz ordezkioak, hauen datuak horretarako prestatutako orrietan jasotzen direlarik.

II.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta laurden direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

